



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a  
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Itzulpena eta interpretazioa:  
zurekin baina zu gabe

*Claudia M. Torralba-Rubinos*

35-41 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.01.04>



## Itzulpena eta interpretazioa: zurekin baina zu gabe

Torralba-Rubinos, Cl. M.

*Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU*  
*claudiamaria.torralba@ehu.eus*

### *Laburpena*

Artikulu honen abiapuntua itzulpenaren eta interpretazioaren arteko harremana da, eta, ondoren, hibridoak, eta, zehazki, ikusizko itzulpena aztertzen dira xehekiago. “Aldibereko interpretazioa testuarekin” izeneko modalitatea da, hain zuzen, hibrido horietako bat, eta oso maiz erabiltzen da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), batez ere Eusko Legebiltzarrean. Hortaz, erabilerak eta orain arteko ikerketa faltak justifikatzen dute modalitate hori aztertzeko beharra eta interesa. Alabaina, itzulpena beti egiten da euskaratik gaztelaniara, eta inoiz ez alderantziz. Zergatik? Artikulu honek EAEko hizkuntza-arloko araudiari eta egungo egoera soziolinguistikoari begira erantzuten dio galdera horri.

Hitz gakoak: itzulpengintza, interpretazioa, ikusizko itzulpena, aldibereko interpretazioa testuarekin, Eusko Legebiltzarra

### *Abstract*

*The starting point of this article is the relationship between translation and interpreting. From there, it moves on to the analysis of hybrid activities and, more specifically, sight translation. Simultaneous interpreting with text is one of those hybrids, and it is very often used in the Basque Autonomous Community (BAC), especially at the Basque Parliament. Therefore, the interest in deepening knowledge of this modality is clearly justified by its commonplace nature and the lack of research on the topic until now. However, translation always happens from Basque into Spanish, never the opposite direction. Why? This article seeks to answer this question by analysing the language regulation and the sociolinguistic situation of the BAC.*

*Keywords: translation, interpreting, sight translation, simultaneous interpreting with text, Basque Parliament*

## 1. Sarrera eta motibazioa

Azken 50 urteotan hazkunde izugarria egon da Translation and Interpreting Studies (TIS) delako ikerketa arloan, eta mundu osoan barna ezarri dira itzulpengintza eta interpretazioko ikasketak (Song, 2017). Zorionez ala zoritxarrez, euskaldunok ez gara salbuespen: 2020-2021 ikasturtean, 20 urte bete dira UPV/EHU-n Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua (orduan, lizentzia) martxan jarri zenetik. Ez da, ez, marka makala. Iragan da jada urte mordoxka bat, eta, beraz, une aproposa izan daiteke atzera begiratu eta ordutik hona egindakoak eta etorkizunerako utzitakoak aztertzeko.

Asko dira egin daitezkeen –eta egin beharko lirakeen– azterketak, eta denak ala denak izan daitezke interesgarriak, zalantzarik gabe. Alabaina, aztergaia mugatu beharra dago, eta guk aspalditik erantzun bila dabilen galdera batean jarri dugu arreta:

Itzulpena eta interpretazioa: zer berdin eta zer ezberdin?

Erantzunik errazena itzulpenaz eta interpretazioaz ezer ez dakien norbaiti eman ohi zaiona da: “itzulpena idatzizkoa da eta interpretazioa, aldiz, ahozkoa”. Alabaina, egiatan, adierazpen simple horretatik askoz haratago doa itzulpenaren eta interpretazioaren arteko lotura.

Badago metafora polit bat itzulpenaren eta interpretazioaren arteko harreman konplexu hori azaltzeko: ahizpak dira (Vandevoorde et al., 2019). Itzulpena da ahizpa zaharra; izan ere, historia osoan zehar aurki daitezke itzulpenaren inguruko gogoetak, nahiz eta itzulpen-ikasketak 1950eko hamarkadatik aurrera egituratu ziren zientzia arlo bereizi gisa (Ibarluzea, 2017). Halaber, itzulpena da bietatik arreta gehien erakartzen duena (Gile, 2011). Interpretazioa, berriz, askoz gazteagoa da. Lehen eskuliburu praktikoak eta artikuluak 1960ko hamarkadan hasi ziren agertzen (batez ere, Japonian eta SESBn), eta 1970eko hamarkadan eratu zen zientzia arlo bereizi gisa, nagusiki Parisko ESITko Danica Seleskovitch irakaslearen lanari esker (Gile, 2009a).

Irudi horrekin jarraituz, aitortu behar da, halaber, itzulpena eta interpretazioa lagun ezberdinekin elkartzan direla: itzulpen-ikasketak estuki lotuta daude filosofiarekin, literaturarekin, diskurtsoarekin eta teknologiarekin; eta interpretazio-ikasketak, aldiz, maizago joaten dira psikologiaren, soziologiaren eta elkarrizketaren analisiaren eskutik (Vandevoorde et al., 2019). Beren aztergaien ere ez datoz guztiz bat: interpretazio-ikasketek oso azkar utzi zuten atzean itzulpen-ikasketetan produktuaren gainean egiten den gogoeta intelektual eta sakona, aplikazio profesionalean eta prestakuntzan zentratzeko (Gile, 2009a). Ildo horretan, itzulpen-ikasketek produktua izaten dute hizpide maizago, eta interpretazio-ikasketek, ostera, prozesua (Vandevoorde et al., 2019).

Alabaina, aspaldi aldarrikatu zuten Gilek (1995), Chestermanek (2004) eta beste batzuek itzulpenaren eta interpretazioaren arteko aldeak puztea baino, komenigarriagoa zela antzekotasunak azpimarratzea, eta, zentzu horretan, aurrerapen ugari egin dira azken urteotan bataren eta bestearen hurbilpen teoriko, praktiko eta metodologikoak bateratzeko (Vandevoorde et al., 2019).

Horraino, dena argi, baina ikusi dugunez, bataren eta bestearen arteko harremanari buruzko gogoeta horretan ez da zalantzan jartzen itzulpenaren eta interpretazioaren artean muga zurrun bat dagoela; antzekoak dira, bai, eta gauza asko dituzte komunean. Are gehiago, agian, ugariagoak izango dira antzekotasunak ezberdintasunak baino. Aitzitik, parekotasunak gorabehera, argi uzten da diziplina independenteak direla: itzulpena ETA interpretazioa dira. Horrek hainbat galdera planteatzen ditu: dena al da zuri ala beltz? Ez al dago kontinuumik bataren eta bestearen artean? Posible da produktu eta prozesu guztiak “itzulpen” edo “interpretazio” etiketapen sailkatzea? Erantzunak nahiko agerikoa dirudi: ez, banaketa horrek ezin du zurruna izan. Itzulpenaren eta interpretazioaren arteko modalitate hibridoak ere badaude, eta horiek aztertzeke, gainditu egin behar da dikotomia hori.

Hibrido horietako bat da, hain zuzen, gure ikerketa-lanean aztertuko duguna: ikusizko itzulpena. Azken urteotan gaia gehiago jorratu den arren, oraindik ere gutxi aztertu da, hala nazioartean (Li, 2014; Krapivkina, 2018), nola gurean (Torralba-Rubinos, 2018). Horregatik, oro har, ikerketa faltak, eta, zehazki, euskarazko interpreteen eguneroko lanean modalitate hori jorratu behar izateak (Torralba-Rubinos, 2018) justifikatzen dute ikerketa honen beharra eta interesa.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Esan dugu ikusizko itzulpenaren gaineko nazioarteko ikerketak areagotu egin direla azken urteotan, hain zuzen, modalitate horrek gero eta protagonismo handiagoa duelako hainbat esparrutan; besteak beste, hezkuntzan, jardun profesionalean eta hizkuntzen gaineko ikerketan (Ersozlu, 2015). Alta, ikerketa gutxi dago oraindik ere (Obidina, 2015), eta aditu batzuek salatu dute beste modalitate batzuk baino gutxiago aztertu dela (Trovato, 2012). Bereziki, ikusizko itzulpenaren alderdi kognitiboari erreparatzeko beharra azpimarratu da (De Laet, 2012), eta horretan zentratu dira azkenaldian argitaratutako ikerketa ugari (Kokanova et al., 2018; Ren et al. 2019; Wenchao eta Defeng, 2020).

Euskal Herrira etorrira, are okerragoa da egoera: gutxi dira ikusizko itzulpenari egin zaizkion aipamenak (Torralba-Rubinos, 2018), eta tesi-proiektu hau da ikusizko itzulpena hizpide izango duen lehena. Hortaz, agerikoa da gai horri buruz egiten den ikerketa oro izango dela baliagarria euskal itzultzaile eta interpreteentzat. Alabaina, aurrera egin eta ikerketaren helburuak zein diren zehaztu baino lehen, komeni da gure aztergaia ondo mugatzea.

Ikusizko itzulpena egitea jatorri-hizkuntzan idatzitako testu bat xede-hizkuntzara ahoz itzultzea da (Dragsted et al., 2009; Lee, 2012). Arazoa da ez dagoela zehatz-mehatz definituta ikusizko itzulpena, berez, zer den, adituak ez baitaude ados. Horregatik, itzulpenaren eta interpretazioaren arteko hibrido bat dela esan ohi da (Obidina, 2015), aditu batzuek idatzizko itzulpenetik gertuago eta beste batzuek, aldiz, ahozko itzulpenetik edo interpretaziotik gertuago kokatzen duten arren. Zentzu horretan, Jiménez-Ivaresek eta Hurtado-Albirrek (2003) azpimarratzen dute jarduera horri zenbait izen eman zaizkiola nazioartean (sight translation, sight interpretation, simultaneous with text, first sight translation, on-sight translation, ex tempore translation, traduction à vue, traduction à simple vue, simultanée documentée, traduction à livre ouvert, traduction au manéophone, traducción a (la) vista eta interpretación a (la) vista), baina ez dagoela argi denek ala denek jarduera berari erreferentzia egiten dioten ala ez, hainbat ikusizko itzulpen mota dagoelako. Horra hor, beraz, aztergaia ondo definitzeko erronka.

Guk simultánea con texto (Jiménez-Ivars eta Hurtado-Albir, 2003) edo aldebereko interpretazioa testuarekin (Gile, 2009b) deritzon modalitatea aztertuko dugu. Zehazki, aldebereko interpretazioaren

eta ikusizko itzulpenaren arteko konbinazioa da (Jiménez-Ivars eta Hurtado-Albir, 2003), eta oso ohiko modalitatea da komunikazioa bermatzeko interpreteen beharra duten konferentzietan, hala nazioartean (Gile, 2009b), nola Euskal Autonomia Erkidegoan (Torralba-Rubinos, 2018). Alabaina, euskal interpreteek aditzera eman dute konferentzietatik at, badagoela aldibereko interpretazioa testuarekin oso maiz egiten den beste esparru bat gure erkidegoan: Eusko Legebiltzarra. Ondorioz, erabilera-esparruak berak mugatzen du aztertuko dugun hizkuntza-konbinaketa: euskara eta gaztelania izango dira jatorri- eta xede-hizkuntzak, bi hizkuntza horiek erabiltzen baitira, aurrerago ikusiko dugunez, euskal erakunde publikoetan.

Hain zuzen, Eusko Legebiltzarrean aldibereko interpretazioa testuarekin egiteko beharra sortzen da legebiltzarkideen aurrean agertu behar duten hizlariak beren hitzaldiak aurretiaz idatzi eta testu horiek interpreteei helarazten dizkietenean. Kasu horretan, idatzizko testuak ahozko agerraldian irakurtzeko asmoarekin prestatzen dira aurretiaz. Dena den, interpreteek datu are interesgarriago bat eman dute aditzera: inpresioa dute hori euskara > gaztelania norabidean egiten dela nagusiki, eta ez alderantziz (Torralba-Rubinos, 2018).

Azken datu hori deigarria eta ezezaguna izan daiteke askorentzat, aldibereko interpretazioa testuarekin ofizialak diren bi hizkuntzen artean egiteaz gain, norabide bakarrean egiten delako. Horrelakorik ez da oraindik aztertu. Gauzak horrela, tesiaren hastapenetan eta oraindik ere urratzeko bide luzea dugula jakinda, azterketa honek bi helburu ditu: batetik, EAEko eta Eusko Legebiltzarreko paisaia soziolinguistiko berezian bilatzea fenomeno hori azalduko duten arrazoiak, eta bestetik, aldibereko interpretazioa testuarekin hizkuntza-konbinaketa horretan aztertzeko beharra eta interesa justifikatzea.

### 3. Ikerketaren muina

Aipatu dugu aldibereko interpretazioa testuarekin oso testuinguru berezian egiten dela Eusko Legebiltzarrean, hasteko, bi hizkuntza ofizialen artean egiten delako. Hain zuzen, Espainiako Konstituzioan (Espainiako Gobernuak, 1978) bertan jasotzen da Espainiako Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelania izanagatik ere, Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango direla, haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan eta beren Estatutuetan ezarritako eran.

Bada, 1979ko abenduan onartu zen lege organiko bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (Eusko Jaurlaritza, 1979), eta bi hauek xedatu zituen hizkuntzari dagokionez: batetik, euskara ofiziala dela gaztelaniarekin batera; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoei dagokiela euskara normalizatzea eta garatzea. Azken hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 14ko 10/1982 Oinarrizko Legearen bidez egin zuen Eusko Legebiltzarrak (Eusko Jaurlaritza, 1982). Bertan, esplizituki adierazten da euskara euskal herriko kultura-ondarearen funtsezko osagaia eta euskal nortasunaren ezaugarri nabarmenena eta objektiboena dela. Halaber, errepikatu egiten da euskara erabilera ofizialekoa dela, gaztelaniarekin batera. Zentzu horretan, euskara jakitea eta erabiltzea gizakiak erkidegoan bete-bete txertatzeko tresnatzat jotzen da, baina propio aipatzen da horrek ezingo diela inongo kalterik eragin edozein arrazoigatik euskara erabili ezin duten herritarren eskubideei.

Xehetasun gehiagotan sartuta, 10/1982 Legearen Lehen Kapituluaren arautzen da euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan. Zehatz-mehatz, 6.1 artikulua xedatzen du herritar guztiek dutela administrazio publikoekiko harremanean euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta, ondorioz, neurri egokiak hartu eta beharrezkoak diren baliabideak hornitu beharko direla eskubide hori arian-arian gauzatzen dela bermatzeko. Baliabide horietako bat itzulpena egitea edo bi hizkuntza ofizialetan idaztea da, eta hori beren-beregi aipatzen da legearen hainbat artikulutan (xehetasun gehiagorako, ikus 10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa). Are gehiago, 12. artikulua Eusko Jaurlaritzaren esku uzten du bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile titulua lortzeko baldintzak arautzeko eta itzultzaileen zerbitzu ofiziala sortzeko betebeharra. Beraz, argi dago itzulpenaren presentzia hasiera-hasieratik antzeman daitekeela euskararen erabilera garatzeko araudian.

Alabaina, administrazio publikoetan euskarak izan behar duen presentzia sakonkiago erregulatu eta antolatzeko, hamabost urte beranduago argitaratu zen 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal

Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa (Eusko Jaurlaritza, 1997). Horrek administrazio publiko guztiei eragin zien, guk aztergai dugun Eusko Legebiltzarra barne.

Dekretu horren 11. artikulua bitartez xedatu zen zenbat lanpostuk izan behar duten derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna erakundeko lanpostu kopuru osoa aintzat hartuta. Derrigorrez bete beharreko indize deritza kopuru horri, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen euskararen ezagutzari buruzko Erroldan, Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan edo taula orokorretan jasotako informazioa aintzat hartuta kalkulatu da, formula honen arabera:  $\text{Euskaldunak} + (\text{Ia Euskaldunak})/2$ .

15. artikuluan, administrazio-atalen sailkapena egiten da (jendaurrekoak, gizarte-mailakoak, orokorrak eta bereziak), eta 17. artikuluan, berriz, erakunde bakoitzaren derrigortasun-indizearen arabera bete behar diren gutxiengo baldintzak ezartzen dira.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, datu horiek guztiak Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Planean (2018-2022) daude jasota, betiere egungo errealitate soziolinguistikora egokituta, eta esanguratsuak dira Legebiltzarrean erabiltzen den hizkuntzari eta, ondorioz, hartzaileen ulermena bermatzeko beharrezkoak diren itzulpen- eta interpretazio-jardunei dagokienez.

Eusko Legebiltzarra 1980an sortu zen, Gernikako Estatutua egin eta berehala, eta hasieratik hartu zuen bere gain bertan euskarari buruz xedatutakoa. Gauzak horrela, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduen bigarren artikuluan bertan jasotzen dira hauek guztiak: (i) euskara eta gaztelania dira Eusko Legebiltzarreko hizkuntza ofizialak; (ii) bi hizkuntza ofizial horien erabilera normalizatua bermatuko du Eusko Legebiltzarrek; (iii) bi hizkuntza ofizialak berdinean erabiltzeko eskubidea dute legebiltzarkideek, Eusko Legebiltzarreko langileek eta herritarrek; (iv) argitalpen ofizial guztiak elebidunak izango dira eta (v) bi hizkuntzak jakin eta erabiliko direla bermatzeko, Eusko Legebiltzarrek beharrezkoak diren neurriak eta baliabideak jarriko ditu (Eusko Jaurlaritza, 2009).

Printzipio horiek guztiak Legebiltzarrean eraketa-erregelamenduan jasota zeuden arren, euskararen lehen erabilera-plana ez zen 2008ra arte egin (Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2008-2012), eta, orduetik, beste bi plan egin dira, 2013-2017 aldikoa (Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2013-2017) eta 2018-2022 aldikoa (Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022).

Egun indarrean dagoen plana aztertzea (Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022) bereziki interesgarria da hizpide dugun gaiaren testuinguruaren berri emateko; izan ere, itzultzaile-interpretak jendaurreko ataltzat jotzen ditu 86/1997 Dekretuak proposatutako administrazio-atalen sailkapenean. Horrek esan nahi du administratuekiko harremanetan ibiltzen direla beren zeregin nagusietan, ahoz zein idatziz. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, berriz, Eusko Legebiltzarrek bete beharreko indizea % 54,13koa da, eta, beraz, honako helburu hau du jendaurreko administrazio-ataletan: “Administratuari (herritarra, legebiltzarkidea, legebiltzar-taldea) zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz eta bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira” (Eusko Jaurlaritza, 2018a).

Hala ere, planean bertan gogorarazten da Eusko Legebiltzarra erakunde berezia dela, eta batez ere legebiltzarkideak eta beren jarduna administratzen dituela, eta ez horrenbeste herritarrak. Horra hor, beraz, jendaurreko administrazio-atalek zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz emateko betebeharra, administratuen hizkuntza-eskubideak bermatze aldera. Dena den, ez dugu ahaztu behar administratuek euskara eta gaztelania berdinean erabiltzeko eskubidea izateaz gain, euskara ulertzen ez dutenek informazio hori gaztelaniaz jasoko dutela ere bermatu behar dela, hizkuntzagatik baztertuak izan ez daitezen.

Hizkuntzaren ezagutzari helduta, XI. Legegintzaldiko legebiltzarkideen % 73,4k menperatzen zuen euskara (zehatz-mehatz, 49 legebiltzarkidek adierazi zuten euskara zekitelako eta beste 6k, aldiz, beren euskara-maila oinarritzakoa edo ertaina zela), planean bertan jasotako datuen arabera. Beraz, hortik ondorioztatuta behar dugu legebiltzarkide guztiek menperatzen zutelako gaztelania, baina legebiltzarkideen laurdena baino gehiago ez zela gai euskara ulertzeko.

Hizkuntza-paisaia hori abiapuntutzat hartuta, planak xehe-xehe arautzen du euskara nola erabili behar den hainbat motatako ahozko eta idatzizko harremanetan. Guri jendaurreko ekitaldiak interesatzen zaizkigu, herritarrak ere hartzaile dituztenak, eta bertan eskuarki xedatzen da Eusko Legebiltzarrak antolatutakoak badira, Eusko Legebiltzarrak berak hartu behar duela interpretazio-zerbitzuaren gaineko ardura, entzule guztiek euskarazko jarduna ulertuko dutela bermatzeko.

Izan ere, Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2016), EAEn bizi diren herritarren % 33,9 dira euskaldunak (euskara ulertzeko eta erabiltzeko gai dira), % 19,1 euskaldun hartzaileak (gai dira euskara ulertzeko, baina ez euskaraz ekoizteko) eta % 47a erdaldunak. Beste era batera esanda, EAEko herritarren % 53 da gai euskara ulertzeko eta % 47a ez.

Entzule guztien ulermena bermatuko duen interpretazio-zerbitzua emateko, planean espresuki jasotzen da Itzulpen Zerbitzuari interpretazioa prestatzeko materiala aurretiaz helarazi beharko zaiola eta interpretazio-zerbitzua egongo dela iragartzea derrigorrezkoa dela. Aldibereko interpretazioa testuarekin egiteko idatzizko testua material horien artean sartuko litzateke.

Gauzak horrela eta datuen argitan, esan daiteke bi hizkuntza ofizial dituen autonomia-erkidego honetako administrazio publikoetan, eta, zehazki, Eusko Legebiltzarrean, interpreteak behar direla sarritan, jendaurreko ekitaldietan legebiltzarkideen eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu daitezke. Hala ere, norabide bakarrean egin behar dira, hain zuzen, euskara > gaztelania norabidean. Izan ere, biztanleriaren ia erdia eta legebiltzarkideen laurdena baino apur bat gehiago ez da gai euskara ulertu eta erabiltzeko, eta, lehenago esan bezala, legezko betebeharra da bermatzea inor ez dela euskara ez ezagutzeagatik baztertuta izango (Eusko Jaurlaritza, 1982). Aldiz, eta betiere hizkuntza-eskubideak bermatzeari erreparatuta, ez dago kontrako norabidean lan egiteko legezko betebeharririk, espainol guztiek jakin behar baitute gaztelania, Espainiako Konstituzioan ezarritakoari jarraikiz (Espainiako Gobernuak, 1978). Horrek berekin dakar euskara > gaztelania hizkuntza-konbinaketan baino ez direla benetako ulermen-oztopoak gainditzen, eta, horregatik, euskara ulertzen ez dutenen hizkuntza-eskubideak bermatzeko baliabidez gain, euskararen erabilera sustatzeko benetako faktoretzat ere hartzen da euskaratik gaztelaniarako interpretazio-zerbitzua (Berasategi, 1989); hain zuzen, hizlariak lasaitasun osoz erabil dezaketelako euskara, entzule guztiek ulertuko dituztelako bermearekin.

Zentzu horretan, indarrean dagoen Eusko Legebiltzarreko Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatze Planean (2018-2022), euskaratik gaztelaniarako interpretazio-zerbitzua baino ez da aipatzen. Ildo berari tiraka, Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzuko langile-beharrak aldi baterako betetzeko lan-poltsa sortzeko 2018ko deialdi publikoan ikus daitekeenez, hautagaiei ez zaie euskararako interpretaziorik egiteko eskatzen, hirugarren ariketan (“Interpretatze-gaitasuna”) euskaratik gaztelaniarako interpretazio-gaitasuna baino ez baita demostratu behar: “Euskarazko hitzaldi parlamentario baten interpretazioa (aldi bereko itzulpena) egin beharko da gaztelaniara” (Eusko Jaurlaritza, 2018b). Halaber, Eusko Legebiltzarreko webgunean sartu eta, adibidez, osoko bilkuretako grabazioei erreparatuta, erraz asko konproba daiteke euskaratik gaztelaniarako aldibereko interpretazioa baino ez dagoela eskuragarri.

Aldibereko interpretazioa zein norabidetan egiten den arrazoitu eta gero, aztergai dugun modalitatearen ezaugarri bereizgarri den testu idatziaren presentzia heldu behar zaio; izan ere, aurretiaz egindako ikerketek erakusten dute Eusko Legebiltzarreko interpreteek maiz egin behar izaten dutela aldibereko interpretazioa testuarekin (Torrallba-Rubinos, 2018), hain zuzen, hizlariak idatzita eramaten dituztelako beren testuak. Hala ere, ez dirudi euskal parlamentuan eta euskararekin bakarrik gertatzen den fenomeno isolatua denik, interpreteek nagusiki euskarazko hitzaldietan egiten dela adierazi duten arren (Torrallba-Rubinos, 2018); beste parlamentu batzuetan ere gertatzen da, besteak beste, Espainiako Parlamentuan, eta badirudi oratoria- eta erretorika-gabeziekin duela zerikusia (Pérez-Serrano, 2018). Hortaz, ukazina da interesgarria dela orokortuta dagoen joera horrek interpreteen jardunean dituen eragin eta ondorioak aztertzea. Gainera, beharbada, datu horiek estrapolagarriak izango dira interpretazio-zerbitzua duten Espainiako beste parlamentu edo erakunde publiko batzuetako jardunera.

#### 4. Ondorioak

Egindako azterketatik ondorioztatu daiteke, beraz, bi direla Eusko Legebiltzarreko agerraldiak euskaratik gaztelaniara bakarrik interpretatzeko beharra dakarten arrazoi soziolinguistikoak: hizkuntza-eskubidea eta hizkuntzaren ezagutza. EAEko herritarrek, legebiltzarkideek eta legebiltzar-taldeek eskubidea dute bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko Eusko Legebiltzarreko harremanetan, eta, beraz, bermatu egin behar da Legebiltzarreko agerraldietan euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiteko eskubidea. Dena den, bermatu egin behar da, halaber, inor ez dela baztertuko erabiltzen duen hizkuntzazatik, eta, ondorioz, itzuli egin behar dira entzule guztiek ulertzen ez dituzten hizkuntza ofizialetako komunikazioak. Horrek zuzen-zuzenean garamatza hizkuntzaren ezagutzaren kontura: eskuragarri dauden azken datuen arabera, EAEko herritarren ia erdiak eta legebiltzarkideen laurdenak baino gehiagok ez du euskara ulertzen baina, aldiz, denek dute gaztelania ezagutzeko betebeharra. Horrenbestez, eta gorago ikusi dugunez, Legebiltzarrean ez da gaztelaniatik euskararako interpretaziorik egiten, eta, beraz, euskaratik gaztelaniarako jarduna aztertzea da aukera bakarra.

Gauzak horrela, azterketa honetatik atera daitekeen bigarren ondorioa da oso interesgarria eta berritzailea dela Legebiltzarreko hizkuntza- eta itzulpen-jardunak aztertzea; izan ere, aldibereko interpretazioa testuarekin euskara > gaztelania norabidean ikertzeak berrikuntza ugari ekarriko ditu: euskararen kasuan, berriak dira aztergaia bera, hizkuntza-konbinazioa, eragindako hizkuntzen estatus ofiziala eta aztertuko diren testuingurua eta jarduna. Gainera, nazioartean egin diren ikerketek hizkuntza hegemonikoak (ingelesa, frantsesa, alemana, txinera...) izan dituzte aztergai, eta hizkuntza gutxitu baten ikuspegia sartzeak gaiari beste modu batera erreparatzeko aukera emango du, baita euskararen eta gaztelaniaren arteko harremana hobeto ulertzeko ere. Ez hori bakarrik, beste parlamentu batzuetan ere zabaltzen ari den testuak aurretiaz idatzita eramateko joera aztertzekeo parada ere emango digu.

#### 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Hastapeneko azterketa hau doktore-tesi baten oinarrian kokatzen da, eta, beraz, ibilbide luzea dago oraindik egiteke. Lehen azterketa honek gaiaren egokitasuna eta berau aztertzekeo premia justifikatzeko balio izan du, baina, batez ere, aztergaia mugatu eta tesiaren helburu nagusiak finkatzeko izan da lagungarria. Bi dira: batetik, Eusko Legebiltzarrean aldibereko interpretazioa testuarekin deritzon modalitatean sortzen diren idatzizko eta ahozko testuak ezaugarritzea, erabilitako itzulpen-teknikak identifikatzea eta hizkuntzen arteko harremanak hobeto ulertzea, eta, bestetik, Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan aplikatzeko moduko ekarpen didaktiko bat egitea, ikasleei beren etorkizuneko jardun profesionalean beharko dituzten gaitasunak garatzen laguntze aldera. Horretarako, Legebiltzarreko agerraldietako testuez osatutako corpus sinkroniko bat bildu eta aztertzea izango da hurrengo urratsa, testu-generoa bera ezaugarritu eta profesionalen interpretazioa egiteko erabiltzen dituzten teknikak identifikatzeko. Orain arte bederatzi lagin bildu dira, 2020 eta 2021 artean, baina corpusa hamalau edo hamabost laginera zabaltzea da asmoa. Gero, ezagutza horiek aintzat hartuko dituen dispositibo didaktiko bat sortuko dugu Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasleekin azterketa esperimentalala egiteko. Azkenik, gure ekarpen didaktikoaren erabilgarritasuna baloratuko dugu.

Horrekin guztiarekin, espero dugu gai izango garela aztergai dugun hibridoaren bidez itzulpenaren eta interpretazioaren arteko harremana hobeto ulertzeko, baita beharbada, idatzizkoaren eta ahozkoaren, eta euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanak hobeto ezagutzeko ere. Gainera, aplikazio praktikoa ere izango du, unibertsitateko graduan aplikatzeko proposamen didaktiko bat, alegia. Gauzak horrela, espero dugu ikerketa honek hainbat arlotan egingo dizkiola ekarpen teoriko eta praktikoa itzulpen- eta interpretazio-ikasketei.

## 6. Erreferentziak

- Berasategi, J. I. (1989): La traducción jurídico-administrativa en el País Vasco, *Revista de Lengua i dret*, 13, 29-45.
- Chesterman, A. (2004): Paradigm problems?, in C. Schäffner (arg.), *Translation Research & Interpreting Research: Traditions, Gaps and Sinergies* Multilingual Matters, Clevedon, Buffalo eta Toronto, 52-56.
- De Laet, F. (2012): Teaching and training sight translation: A multitasking activity in W. Ren (arg.), *Interpreting in the age of globalization – proceedings of the 8th National Conference and International Forum on Interpreting*, Foreign Language Teaching and Research Press, Pekin, 181-198.
- Dragsted, B., Hansen I.G eta Soresen, H. (2009): Experts exposed, in I. Mees, F. Alves eta S. Göpferich (arg.), *Methodology, Technology and Innovation in Translation Process Research: A Tribute to Arns Likke Jakobsen*, Samfundslitteratur, Kopenhage, 293-317.
- Ersozlu, E. (2005): Training of Interpreters: Some Suggestions on Sight Translation Teaching, *Translation Journal*, 4. [<https://www.translationdirectory.com/article755.htm>]
- Espainiako Gobernua (1978): Espainiako Konstituzioa, 1978. [[https://labur.eus/EspainiakoKonstituzioa\\_euskaraz/](https://labur.eus/EspainiakoKonstituzioa_euskaraz/)]
- Eusko Jaurlaritzaren (1979): 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena (Euskal Kontseilu Nagusiko Aldizkari Ofiziala (EKNAO/BOCGPV, 32 zk.). [<https://www.euskadi.eus/autonomi-estatutua/web01-s1ezaleh/eu/>]
- (1982): 10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, EHAA/BOPV: 1982/12/16). [[https://labur.eus/10\\_1982Legea\\_itzulpenberria/](https://labur.eus/10_1982Legea_itzulpenberria/)]
- (1997): 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, EHAA/BOPV: 1997/04/17). [[https://www.legegunea.euskadi.eus/x59contfich/eu/contenidos/decreto/bopv199701956/eu\\_def/index.shtml](https://www.legegunea.euskadi.eus/x59contfich/eu/contenidos/decreto/bopv199701956/eu_def/index.shtml)]
- (2009): Eusko Legebiltzarren Erregelamendua (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, EHAA/BOPV: 2009/02/18). [[https://labur.eus/Legebiltzarreko\\_Erregelamendua/](https://labur.eus/Legebiltzarreko_Erregelamendua/)]
- (2016): VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [<https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=744775>]
- (2018a): Eusko Legebiltzarreko Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022. [<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren/liburua/eusko-jaurlaritzaren-euskararen-erabilera-normalizatzeko-irizpide-orokorrak-eta-plan-nagusia-vi-plangintzaldia-2018-2022/>]
- (2018b): Iragarkia, Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzuan langile-beharrak aldi baterako betetzeko lan-poltsa sortzeko deialdi publikoaren oinarri espezifikoiei buruzkoa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, EHAA/BOPV: 2018/03/28). [<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801685e.pdf>]
- Gile, D. (1995): *Basic concepts and models for interpreter and translator training*, John Benjamins, Amsterdam/Filadelfia.
- (2009a): Interpreting Studies: A critical view from within, *MonTI. Monografías De Traducción E Interpretación*, 1, 135-155.
- (2009b): *Basic Concepts and Models for Interpreter and Translator Training* (Euskarazko itzulpena: *Oinarrizko kontzeptuak eta ereduak interpreteen eta itzultzaileen trebakuntzarako*, M. Arruti, (itz.), I. Santamaría (zuz.), in G. Bilbao (arg.), Leioa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea).
- (2011): Preface in B. Nicodemus, eta L. Swabey (arg.), *Advances in interpreting research: Inquiry in action*, John Benjamins, Amsterdam, vii-ix.
- Ibarluzea, M. (2017): *Itzulpen gintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: Eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak* fikzioan, Leioa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Jimenez-Ivars, M. A. eta Hurtado-Albir, A. (2003): Variedades de traducción a la vista. Definición y clasificación, *TRANS*, 7, 47-57.